



Prensa oharra

ANIMALIEN EDUKITZE ARDURATSUA BULTZATZEKO II. SENTIBERATZE KANPAINA ANDOAINEN - 2019

Txakur jabeen, animalien eta herritarren arteko elkarbizitza hobetzeko asmoz, Andoaingo Udalak *animalien edukitze arduratsua bultzatzeko II. sentiberatze kanpaina* jarriko du martxan, 2018an egindako ekinaldiari jarraipena emateko helburuarekin.

Beterrri-Buruntza eskualdeko enplegua sustatzeko ekimenen barruan kokatzen den kanpaina honetan, Andoain, Astigarraga eta Lasarte-Oriako Udalek parte hartuko dute. Proiektua kudeatuko duen pertsonaren kontratazioa òTokiko Enplegu Ekintzakò Lanbidek diruz laguntzen duen egitasmoaren bitartez bideratzen da.

Hiru udalerrietan ekinaldiak 2 fase izango ditu. 1. fasean, auzoz auzo berdegune zein lurrian jaso gabe utzi diren gorotzen seinalizazioa egingo da, banderatzko gorri eta klarionen bidez (zirkulu batez inguratuz), hurrenez hurren. Gainera, hezitzaile batek kalean jabeak informatu eta sentiberatuko ditu, batik bat hiru jarrera indartzea bilatuko baita: txakurrak lotuta eramatea, gorotzak jasotzea eta arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak lotuta, muturrekoarekin eta lizentziadun pertsonen gidaritzapean eramatea. 2. Fasean, lehenengoan egindakoa errepikatuko da, indartze modura. Hezitzaileak, gainera, gorotzak jasotzen ez dituztenei poltsak eskainiko dizkie.

Ia lau asteko iraupena izango du ekinaldiak Andoainen. 1. fasea otsailaren 25etik martxoaren 8ra arte izango da eta 2. fasea apirilak 8tik 17ra bitarte. Hori horrela, banderatzko gorriei zein klariona markei kanpaina bukatu arte eutsiko zaie, kanpainaren eragina handiagoa izan dadin.

Iaz egin genuen kanpainaren ostean, egungo ordenantza aldatzeko konpromisoa hartu genuen. Ordenantza aldaketa horretan, txakur jabeak, merkatariak eta interesa duten herritar guztiak parte hartzea nahiko genuke. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak ireki dituen partehartze dirulaguntzetan, ordenantza aldatzeko parte hartze prozesu bat egiteko proiektua sartu dugu.

Azkenik, Andoaingo Udalak txakur-jabe guztiak eredugarri izan daitezen animatu nahi ditu, herritar guztion elkarbizitza hobetzearen alde.

Andoainen, 2019ko otsailaren 22an